# ZE ESATEK

# Inoiz egin dugun diskorik onena






ITZULI DA DANTZATOKIETARA ZE ESATEK TALDEA! EZ HALA NOLA GAINERA, INOIZ EGIN DUTEN DISKORIK ONENAREKIN BUELTATU DIRA. HALA DIO BEHINTZAT BONBERENEA EKINTZAK ZIGILUAREKIN ARGITARATUTAKO DISKO HONEN IZENBURUAK ("INOIZ EGIN DUGUN DISKORIK ONENA"). EGIA ESAN, AUKERA HANDIAK IZAN DITZAKE HORRELA IZATEKO. HASTEKO, URTEEN PODERIOZ IRABAZITAKO ESPERIENTZIAK EMATEN DIEN JAKINDURIA GRABATUTAKO ABESTIETAN ISLATUTA GERATU DELAKO. HORRELA, EGUNEROKOTASUNEAN GERTATZEN DIREN EGOERA EDO ALBISTEAK EUREN BEGIRADA KRITIKO ETA SARKASTIKOTIK ABIATUTA MARGOTZEKO GAI IZAN DIRA BESTE BEHIN.

GAIAK ANITZAK DIRA ETA EZ DA IA INOR SALBATZEN EUREN IKUSPEGI KRITIKOTIK. JONKY-ROLARI ABESTIAK, ESATERAKO, BESTE EDOZERREN GAINETIK GORPUTZA GURTZEN DUTEN PERTSONAK DITU JOMUGA. AMAIERA ALAIEGIRIK EZ DUEN MAITASUN ISTORIORIK ERE BADA DISKOAN (ILUNETIK ARGIRA ETA BUELTA) ETA LAGUNEN ARTEKO HARREMANETAN KONFIANTZA NAGUSITZEN DENEAN GERTATU OHI DENA DESKRIBATZEN DUEN ABESTI BAT ERE BAI (EZIN ZAITUT JASAN). PARRANDARI BURUZKOAK (ZAPAIATIK ZINTZILIK), KLASE KONTZIENTZIA ALDARRIKATZEN DUTENAK (WORKING CLASS), ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO GOI KARGUETATIK ENPRESA HANDIENETAKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUETARA DARAMATEN ATE BIRAKARIAK AIPATZEN DITUZTENAK (KOSTA ALA KOSTA) ETAB. EZ ZAIO AHAZTU TALDE DONOSTIARRARI ZEIN DEN GURE KONTZIENTZIA ETA PENTSAMOLDEAK ASTINTZEKO DUTEN ESTILOA.

HONETAZ GAIN, DISKOAK KOLABORAZIO EZBERDINAK IZAN DITU: GARAZI ESNAOLAK TEKLATUAK SARTU DITU ABESTI EZBERDINETAN ETA TALCO TALDEKO KIDEEK AHOTSAK GRABATU DITUZTE EZIN ZAITUT JASAN KANTUAN. BESTALDE, PIANISTAREN HERIOTZA ABESTIAREN HITZAK JOSEBA SARRIONAINDIAREN OLERKI BATEAN OINARRITUTAKOAK DIRA. DISKOAREN GRABAZIO ETA NAHASKETAZ KARLOS OSINAGA ARDURATU DA ETA MASTERIZAZIOA JONAN ORDORIKARENA DA. DISEINUAREN ALORREAN, MARRAZKIAK JOSEBA PONCE ETA PABLO GARCÍA ARTISTENAK DIRA ETA DISEINUA BERA ETA MAKETAZIOA IMANOL URIZARREK BURUTU DITU. BUELTAN DA ZE ESATEK!

EL GRUPO ZE ESATEK VUELVE A LAS PISTAS DE BAILE, Y NO DE CUALQUIER MANERA. VUELVE CON EL MEJOR DISCO QUE HAN HECHO NUNCA. ASÍ LO CONFIRMA EL TÍTULO DEL DISCO QUE PUBLICAN CON LA PLATAFORMA BONBERENEA EKINTZAK. LA VERDAD ES QUE TIENE MUCHAS POSIBILIDADES DE QUE ASÍ SEA, DEBIDO A QUE LA EXPERIENCIA ADQUIRIDA A LO LARGO DE SUS AÑOS DE TRAYECTORIA SE VE REFLEJADA EN LAS CANCIONES. UNA VEZ MÁS, HAN SIDO CAPACES DE PINTAR LAS SITUACIONES O NOTICIAS QUE SUCEDEN EN LA COTIDIANEIDAD DESDE SU PRISMA CRÍTICO Y SARCÁSTICO.

LOS TEMAS TRATADOS SON DIVERSOS Y SE PUEDE DECIR QUE NO SE SALVA NADIE. SIRVA DE EJEMPLO LA CANCIÓN JONKY ROLARI, CUYA DIANA SON LAS PERSONAS QUE ANTEPONEN EL CULTO AL CUERPO A TODO LO DEMÁS. TAMBIÉN HAY UNA HISTORIA DE AMOR CON FINAL NO TAN FELIZ (ILUNETIK ARGIRA ETA BUELTA) Y UNA CANCIÓN QUE DESCRIBE LAS SITUACIONES ENTRE AMIGOS CUANDO LA CONFIANZA DA ASCO (EZIN ZAITUT JASAN). CANCIONES SOBRE LA JUERGA (ZAPAIATIK ZINTZILIK), SOBRE LA CONCIENCIA DE CLASE (WORKING CLASS), SOBRE LAS PUERTAS GIRATORIAS QUE VAN DESDE LOS ALTOS CARGOS DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA A LOS CONSEJOS DE ADMINISTRACIÓN DE LAS GRANDES EMPRESAS (KOSTA ALA KOSTA)... AL GRUPO DONOSTIARRA NO SE LE HA OLVIDADO SU ESTILO A LA HORA DE AGITAR NUESTRAS CONCIENCIAS Y FORMAS DE PENSAR.

ADEMÁS DE TODO ESTO, EL DISCO CUENTA CON DIFERENTES COLABORACIONES: GARAZI ESNAOLA HA INTRODUCIDO TECLADOS EN VARIAS CANCIONES Y LOS COMPONENTES DEL GRUPO TALCO CANTAN EN LA CANCIÓN EZIN ZAITUT JASAN. POR OTRO LADO, LA LETRA DE PIANISTAREN HERIOTZA ESTÁ BASADA EN UN POEMA DE JOSEBA SARRIONAINDIA. LA GRABACIÓN Y MEZCLA DEL DISCO SON DE KARLOS OSINAGA Y LA MASTERIZACIÓN DE JONAN ORDORIKA. EN EL APARTADO VISUAL, LOS DIBUJOS SON DE JOSEBA PONCE Y PABLO GARCÍA MIENTRAS QUE EL DISEÑO Y LA MAQUETACIÓN SON DE IMANOL URIZAR. HA VUELTO ZE ESATEK!

## TRACKLIST

1 - EZIN ZAITUT JASAN
2 - KOSTA ALA KOSTA
3 - SUMMER OF '74
4 - PIANISTAREN HERIOTZA
5 - ZAPAIATIK ZINTZILIK
6 - ILUNETIK ARGIRA ETA BUELTA
7 - JONKY ROLARI
8 - WORKING CLASS
9 - SAMINAREN EDERRA
10 - BAGOAZ

## HARREMANETARAKO:

INFO@ZEESATEK.COM
WWW.ZEESATEK.COM
INFO@BONBERENEA.COM
WWW.BONBERENEA.COM

## PROMOZIOA / ELKARRIZKETAK

PROMOMUSIKA
Tel. 653 737 700
info@promomusika.com
www.promomusika.com

BONBERENEA EKINTZAK
San Esteban, 16 20400 Tolosa - Gipuzkoa - Euskal Herria
Tel. 943 65 28 81 - info@bonberenea.com - www.bonberenea.com
Mirentxu RECORDS
POTTOLOAK musika managementa